

2014
2015

HAUR HEZKUNTZA

Janaria
ez da bota behar

OTOITZAK



OGIA, eguneroko elikagaia

SINBOLOA: Ogia



MOTIBAZIOA

Gauza handia da, jateko ogia izatea!

Pertsona askok egin dute lan zuk ogia jateko aukera izan dezazun!

Ez da ogia bota behar!

Haur askok ez dute jateko ezer



OTOITZA

Eskerrik asko, Jauna, OGIARENGATIK,
eskerrik asko, ona delako eta elikatu egiten nauelako.

Eskerrik asko ogia egiten
lan egin duten pertsonengatik,
eskerrik asko pertsona horien
ahaleginarengatik eta lanagatik.

Lagundu ogia ondo aprobetxatzen,
ez alferrik botatzen edo mespretxatzen.

Ogirik ez duten haurren alde
eskatzen dizut.

Lagundu haiekin partekatzen,
haiek ere ogia izan dezate



Jostailuak, partekatzeko opari

SINBOLOA: Jostailuak



MOTIBAZIOA

Bai politik gure jostailuak!
Haiekin jolas egiten dugu eta poztu egiten gara.
Gure jostailuak partekatzen ditugunean lagun berriak egiten ditugu.
Gauza ona da jostailuak besteekin partekatzea!

Baina haur askok ez dute jostailurik, eta triste daude.
Ez al duzu uste guk jostailu gehiegi ditugula?
Gauza ona litzateke guk jostailu gutxiago izatea, beste haur
batzuek jostailu batzuk izan ditzaten



OTOITZA

Jauna, Jainko ona:
eskerrak ematen dizkizut pozik nagoelako.
Nire jostailuekin lagunak egiten ditut.
Gauza ona da lagunak izatea!

Erakutsi jostailu asko
izan beharrea,
ditudanak besteekin partekatzen.

Gurasoei jostailu bat eskatzen diedanean,
lagundu jostailurik ez duten haurrengan pentsatzen,
haiei jostailuren bat oparitzen.



Bihotz alaia

SINBOLOA: Bihotz alai baten eta bihotz triste baten irudiak.



MOTIBAZIOA

Gauza ona da bihotz alaia izatea!
Beste batzuekin jolas egiten dudanean alaiago nago.
Nire gauzak uzten dizkiedanean poztu egiten naiz.
Besarkada bat edo muxu bat ematen dudanean zoriontsu naiz.

Zeinen gaizki gauden bihotza triste dugunean!
Besteei gauzak kentzen dizkiedanean, haserretu egiten dira,
eta triste jartzen naiz.
Ikaskidea jotzen dudanean, errieta egiten didate eta negar egiten dut.

Zeinen triste jartzen garen jatekorik, edatekorik,
eskolarik eta jostailurik ez duten haurrak
ikusten ditugunean!
Bien bitartean, guk zaborretara botatzen dugu janaria,
iturria irekita uzten dugu eta ura alferrik gastatzen dugu,
eta egoera onean dauden gauza asko botatzen ditugu paperontzira.



OTOITZA

Jauna, bihotz alaia duzun Jainko ona:
erakutsi zurea bezalako bihotza izaten,
maitatzen, partekatzen eta laguntzen dakiena.
Laztanten eta muxu ematen dakien bihotza.
Tristezia kentzen laguntzen duen bihotza.

Jauna, bihotz alaia duzun Jainko ona,
erakutsi nire bihotzari janaria balioesten eta ez botatzen.
Erakutsi ura zaintzen eta ondo erabiltzen.
Erakutsi gauzak ondo erabiltzen eta ez botatzen.

Jauna, bihotz alaia duzun Jainko ona,
erakutsi zurea bezalako bihotza izaten.



Ez utzi inor bakarrik

SINBOLOA: Haur batzuk eskutik helduta (ilaran edo korroan).



MOTIBAZIOA

Adiskide onak ez du inoiz laguna bakarrik uzten!
Jende askok laguntzen gaitu, eskutik helduta!
Gurasoek, aitona-amonek,
irakasleek, adiskideek...

Egunero, besteei laguntzen dieten pertsonak aurkitzen ditugu,
besteen ondoan dauden pertsonak, eskutik heltzen dietenak.
Eta, gainera, trukean ezer eskatu gabe.
Pertsona onak dira, inor bakarrik uzten ez dutenak.

Zer gertatuko litzateke pertsona horiek guztiak elkartu
eta, eskutik helduta, korro bat egingo balute?
Mundu berria eratuko lukete! Mundu horretan,
guztiak eskutik helduta egongo lirateke, inor ez
litzateke bakarrik egongo. Solidaritatearen eta
adiskidetasunaren mundua izango litzateke.

OTOITZA

Jesus, adiskide ona zara:
zuk ez zenuen inoiz inor bakarrik uzten,
bihotzez maite zenituen guztiak,
eta haurrak besarkatzea atsegin zenuen.

Eskutik heldu nahi dizut, korro bat egiteko,
inoiz inor bakarrik uzten ez duten pertsonen korroa,
adiskidetasunaren korroa,
solidaritatearen korroa.


Mundu ona egingo duen korroa,
pertsona guztiak adiskideak izango garen korroa,
guztia guztiona izango den korroa.



Ongia egiteko eskuak ditut



SINBOLOA: Esku irekien irudia



QUIERODIBUJOS.COM

MOTIBAZIOA

Zeinen garrantzitsuak diren eskuak!
Gauza asko egiten ditugu eskuekin.
Eskuekin jolas egiten dugu eta ondo pasatzen dugu.
Eskuekin jaten eta margotzen dugu.
Eskuekin zaintzen eta laztantzen ditugu pertsonak.
Eskuekin agurtzen dugu, eta adiskideak egiten ditugu.
Eskuak ongia egiteko dira.

Baina, batzuetan,
eskuekin jo egiten dugu eta min ematen dugu.
Eskuekin gauzak apurtzen ditugu.
Eskuekin iseka egiten dugu, iraindu egiten dugu.

Oso garrantzitsua da eskuak ongia egiteko erabiltzea,
eta inoiz ez gaizkia egiteko!

Paper zikina lurrera bota beharrean zakarrontzira botatzeko erabil ditzaket eskuak.
Jostailuak lurrean botata utzi beharrean, horiek jasotzeko eta txukun uzteko erabil ditzaket eskuak. Ura edan ondoren iturria ixteko erabil ditzaket eskuak.

OTOITZA

Jesus Jauna, haurren adiskide hori:
erakutsi eskuak ongia egiteko erabiltzen:
besarkatzeko eta maitatzeko;
besteekin jolasteko eta pozik egoteko;
ezer ez dutenekin partekatzeko.

Erabiltzen ditudan gauzak jasotzeko
eskuak erabiltzen ikasi nahi dut.
Ikastetxeko paperontziak ondo erabiltzeko.
Ura edaten dudanean iturriak ixteko.
Gauzak lurrera ez botatzeko.
Mundu garbiago bat egiteko.

